



**Arartekoaren 2/2010 gomendio orokorra, abenduaren 1ekoa.  
Zaborraren tasa kobratzea, nahiz eta Gipuzkoako zenbait udalerritan zerbitzua modu eraginkorrean eman ez.**

## **1. Sarrera**

Jakina denez, edozein tasa ordainarazteko, subjektu pasiboari benetan eta modu eraginkorrean egin behar zaio zerbitzua. Hau da, kobratzeko, ez da nahikoa udalerrian zerbitzu hori existitzea eta eskaintzea. Horrez gain, zerbitzua ordaintzea eskatzen zaion subjektu pasiboari zerbitzu hori egin behar zaio, berari bereziki eragiten edo mesede egiten dion moduan.

Azken urteotan, tokiko erakundeak ahalegin handia egiten ari dira udaleko zenbait zerbitzu hirigunetik kanpora zabaltzeko, horien artean, zabor bilketa. Ekimen hori onartzearekin batera, ordainagiria kobratzen da, eta batzuetan ez da aintzat hartzen tasa kobratu nahi zaien pertsonen zerbitzua benetan egiten zaien.

Arazo hori hainbat udalerritako nekazaritza ingurutan gertatu da; batez ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoan antzeman dugu. Eremu horien ezaugarri komunak hauek dira: sakabanatuta daude, hirigunetik urrun eta inguru menditsuan. Horrek zaborra biltzen duten kamioiak hara heltzea zailtzen du. Eremu horietan bizi diren pertsonen nabarmentzen dute bertan ez daukatela edukiontzirik, ezta euren etxebizitzetatik gertuko zabor bilketa punturik ere, baina halakoak jartzea nahi dutela. Izan ere, aztertu ditugun kasuetan, kilometro bat baino gehiagoko distantzian zeuden euren etxebizitzatik kilometro bat baino gehiagora zeuden edukiontzi hurbilenak.

Ohikoa izaten da tasa hori arautzen duten udal ordenantzek tarifa murrizturen bat ezartzea, bilketa punturaino dagoen distantziaren arabera. Horrela, nahiko ohikoa izaten da zaborra biltzeko puntua etxebizitzetatik 150 metrora baino urrunago dagoenean tarifa murriztua ezartzea, hau da, tarifa orokorrari gutxi gorabehera %60ko murrizketa egitea. Hala ere, oso ordenantza gutxik zehazten dute behin distantzia jakin bat gaindituta –hala nola, 500 metro edo 400 metro–, tasa ordaintzetik salbuesten dela.

Ziurrenik, Gipuzkoan eskaintzen den benetako zerbitzuarekin bat datorren araudia Donostiako Udalaren ordenantza izango da. Arau horrek, 9. artikuluan, etxebizitzetatik edo lokaletatik zaborra biltzeari dagokionez, kuotaren %50eko hoberia xedatzen du, zerbitzua egiten den tokitik 100 metrora baino urrunago kokaturiko higiezinaren jabe diren subjektu pasiboentzat, betiere eraikinetik bilketa puntura arte dagoen ibilbidearen zenbait tartetan gutxienez %3ko malda baldin badago.





Ordenantza horrek, 7. artikuluan, salbuespena onartzen du etxebizitzetan eta lokaletan zabor bilketaren arloan. Horren onuradunak ondorengo hauek dira: zerbitzua eskaintzen den tokitik 200 metrora baino urrunago kokatuta dauden higiezin jabe diren subjektu pasiboak edo 100 metrora baino urrunago kokatuta dauden higiezin jabeak, betiere eraikinetik bilketa puntura arte dagoen ibilbidearen zenbait tartetan gutxienez %6ko malda baldin badago.

Hala ere, ohikoena da tarifaren hasierako murrizketa soilik ezartzea, etxebizitza bilketa puntutik 150 metrora baino urrunago dagoenean, eta, hortik aurrera, etxebizitzetan eta edukiontzien edo bilketa puntuaren arteko distantzia edozein dela ere, tarifa hobariduna igortzea eta kobratzea.

Eragindako udalek azpimarratzen dute, ordainagirien kobrantza kudeatzeaz gain, baserri horiei beste zerbitzu bat ere egiten dietela: sortzen dituzten hondakinak erraustea, hain zuzen.

## 2. Gogoetak

- 2.1. Tasa hori arautzen duten ordenantzetan zera ezarrita dago: "Udal administrazioak **zerbitzua benetan eskaini** edo jarduera burutzea da egintza ezargarrria...". Baita honako hau ere: "tasa zerbitzua edo jarduera burutzen denean sortzen da". Hau da, ordenantza guztiek inplizituki onartzen dute tasaren ordainketa eskatu ahal izateko, ezinbestekoa dela udalerrian zerbitzu hori sortzeaz gain, tasa ordaintzea eskatzen zaien herritarrei zerbitzu hori benetan egitea.
- 2.2. Zerbitzua benetan egiteari dagokionez, kontuan hartu behar dira epaitegi hauen adierazpenak: Auzitegi Gorenarenarena (1997ko ekainaren 7ko epaia, 12.362/1991 zenbakiko errekurtsioa), Errioxako Auzitegi Nagusiarena (1997ko uztailaren 30eko epaia, 396 zk., 292/1996 zenbakiko errekurtsioa) eta Gaztela-Mantxako Auzitegi Nagusiarena (1997ko irailaren 25eko epaia, 408 zk., 560/1995 zenbakiko errekurtsioa). Horien guztien arabera, bidegabetzat jo zen tasa kobratzea udalak ordainketa erreklamatzeko zion herritar zehatzari benetan zerbitzurik egiten ez bazion.

Horrela, Auzitegi Gorenak, arestian aipaturiko epaian haxe adierazi zuen:

*"...Es obligado, a este respecto, recordar que el hecho imponible de la tasa viene constituido por la prestación de un servicio o la realización de una actividad que beneficia o afecta de modo particular al sujeto pasivo. Lo dice taxativamente el artículo 26.1, a) de la Ley General Tributaria de 1963 (RCL 1963, 2490 y NDL 15243), según el cual 'las tasas son tributos cuyo hecho imponible consiste en la prestación de servicios o la realización de actividades en régimen de Derecho público que se refieran, afecten, o beneficien a los sujetos pasivos, cuando*

*concurran las dos circunstancias siguientes: a) Que sean solicitud o recepción obligatoria para los administrados; b) Que no puedan prestarse o realizarse por el sector privado por cuanto impliquen intervención en la actuación de los particulares o cualquier otra manifestación del ejercicio de autoridad o porque, en relación a dichos servicios, esté establecida su reserva a favor del sector público conforme a la normativa vigente’.*

*Por tanto, ni siquiera la mera existencia de un servicio municipal es suficiente para constituir a una persona en sujeto pasivo de la tasa establecida para su financiación, si el servicio no se presta de modo que aquélla pueda considerarse especialmente afectada por aquél, en forma de beneficio efectivo o provocación por el interesado de la actividad municipal, pues sólo con esas características puede ser un servicio municipal legitimador de la exigencia de la tasa.”*

Halaber, goian aipaturiko beste adierazpenetako bat ere hona ekarri nahi dugu, hain zuzen, Gaztela-Mantxako Auzitegi Nagusiaren 1997ko irailaren 27ko epaia, izan ere, gomendio orokor honetan azaltzen direnen antzeko egintza bat aztertzen da bertan. Egintza hori dela-eta, auzitegi horrek, bere ebazpenean, bidegabetzat jo zuen tasa kobratzea, egiaztatuta geratu baitzen ez zegoela zabor edukiontzirik errekurtsio-egilearen bizilekutik 300 metro baino gutxiagora. Horrelako kasuetan, jurisprudentziak onartzen duenez, ez da benetan udal zerbitzurik egiten, ez baita gauzatzen tasaren ordainketa eskatzea ahalbidetzen duen egitate zergapegarria (alegia, subjektu pasiboari bereziki mesede egiten dion edo bereziki eragiten dion zerbitzu bat egitea edo jarduera bat burutzea).

Zehazki zera adierazten da epai horretan: *“en el domicilio de la entidad recurrente no existe ni ha existido nunca contenedor de basuras, encontrándose el más próximo a 300 metros de distancia, y que por tanto no se le ha realizado el servicio de recogida de basuras, procede declarar vulnerados los artículos 20 y 26 de la Ley de Haciendas Locales, ya que para poderse exaccionar una tasa determinada es necesario que el municipio preste el servicio y que éste beneficie especialmente al administrado o le afecte de modo particular, por lo que no se puede exaccionar una tasa por un servicio que no se presta”.*

- 2.3. Toki araubideari buruzko gure legeriak ezartzen duenez, udalerriek zenbait eskumen bete behar dituzte beren udal eremuan, besteak beste: “hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua” (25.2.1 artikulua).

Zerbitzu horrek nahitaez jaso beharreko zerbitzua izatea du bereizgarri, hau da, zerbitzua erabiltzailearen esku jarri ondoren, erabiltzaileak zerbitzu hori finantzatzen lagundu beharra dauka, tasa bat ordainduz, zerbitzua erabili nahiz ez erabili. Hala ere, herritarrek nahitaez zerbitzua jaso beharrak,



kontrapuntu gisa, administrazioari betebeharrak bat ezartzen dio: zerbitzua benetan eta modu eraginkorrean jarri behar du eskuragarri auzokideentzat. Udalerrian ondasun higiezin baten titular izate hutsak ez die sortzen auzokideei hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua mantentzen laguntzeko obligaziorik. Herritarrari tasa ordain dezan eskatu ahal izateko, ordainketa erreklamatzeko duen administrazioak ahalegina egin beharra dauka ondasun higiezin horiek kokatuta dauden eremu zehatzean zerbitzu hori egitearekin lotutako elementuak jartzeko: edukiontziak, zaborrak biltzeko guneak...

- 2.4. Gai horren gainean, udalei ohartarazi nahi diegu ez dela nahikoa tarifaren kuota murriztea, tarteko distantziak arrazoizkoak ez direnean, ez baita gauza bera udalaren edukiontzi hurbilenak etxebizitzetatik 150 metro pasatxora egotea edo kilometro batera egotea. Azken kasuotan, ez dago esaterik auzokideei zaborrak biltzeko udal zerbitzua benetan egin zaienik.

### **3. Gomendioak**

- 3.1. Ziurtasun handiagoa emate aldera, komenigarria izango litzateke udal ordenantzak euren testuetan distantzia zehatz eta zentzuzkoa zehaztea. Distantzia horretatik aurrera, eremu horretan kokatuta dauden higiezinak ez dute zaborraren tasa ordaindu beharko.
- 3.2. Nekazaritzako inguruetan zabor bilketaren zerbitzua behar bezala egiten ez den bitartean, tokiko erakundeek tasa horren erroldetatik kanpo utzi beharko lituzkete eremu horietan kokatuta dauden higiezinak, higiezinak eta bilketa puntuen arteko distantzia oso handia baldin bada.

